

HEZKIDETZA IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAN

Orain bi ikasturte hezkidetza aholkulariok Ikastetxe Hezkuntza Proiektua (IHP) genero ikuspuntutik aberasteko praktika bat egin genuen. Horretarako erabili genuen Hezkuntza Sailak ateratako IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA eta talde lana dela medio, atal batzuk landu genituen (Nor gara? Non gaude? Zer lortu nahi dugu? Nola lortu nahi dugu?). Bai lan egiteko proposamenak, bai taldeetan egindako ekarpenak eskaintzen dizkizuegu; eredu xume bat besterik ez da, baina huasnarketarako baliagarria izan daitekeelakoan eta eskolaren hezkuntza proiektua genero ikuspuntuaz aberaztu daitekeelakoan gaude.



Helburua: IHP egiteko gida aberastea genero ikuspuntutik (zer falta da?, nola aberastu?...).

Ez da emango eredurik, kontua da denon artean hausnarketa egitea eta proposamenak adostea IHPan sartzeko.

Laguntza materiala: 2 dokumentuak (IHP egiteko gida, Hezkuntza sisteman hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa egiteko Gida Plana) eta PPT-a. Hemen dokumentu horien zatiak karpetan topa daitezke.

- Dinamika **NOR GARA** lantzeko:
 - Taldeka jarrita:
 - Irakurri Hezkuntza sisteman hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa egiteko Gida Planaren 40, 41 orrialdeak. (1.eranskina)
 - Irakurri IHP egiteko gidaren 3.2. NOR GARA? (1.eranskina) PRINTZIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK.
 - Nor gara? Osatu.
 - Guk egindako elkarjartzean atera ziren 3 proposamenak (2.eranskina).
- Dinamika **NON GAUDE** lantzeko
 - PPTaren laguntzarekin komentarioak egin. Ikastetxean genero berdintasuna, genero biolentziari buruz egin den guztia eta egin ez dena jaso. Gida Planaren erronkak atala erreferentzi hartuta, ahuleziak eta sendotasunak atera.
- Dinamika **ZER LORTU NAHI DUGU?** lantzeko
 - Ez da proposatzen dinamika berezirik, komentarioak egin.
 - Helburu askotan genero ikuspuntua sartu daiteke edo jarri helburu bat/batzuk zuzenki hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioarekin lotuta daudenak.
 - Berrero ere erronkak erreferentzi izatea komenigarria da.
 - Gidan helburu zerrenda luzea azaltzen da, errebisatu daitezke eta aukeratu batzuk (gidan proposatzen den dinamikari jarraituz) edota kendu batzuk bat ez datozelako Hezkidetza gida planak planteiatzen duenarekin, adibidez, 82 orrialdeko zerrendan, 3.a bat dator, baina 30. kasuan ez, gainera **Berdindu** zerbitzuak tolerantzia hitza ez erabiltzea proposatzen du.
 -
 - 3. Erabaki pertsonalak modu arduratsu eta askean hartzeko gaitzea, beren zentzumen kritikoa garatuz eta erabilaraziz eta autoestimua areagotuz.**

30. Tolerantziak eta errespetuzko giroa sortzea Hezkuntza komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarriketaren eta parte-hartze arduratsuaren bidez konponduta.

- Dinamika **NOLA LORTU NAHI DUGU?** lantzeko:
 - Taldeka, irakurri IHP gidaren 26-34 orrialdeak. Gero talde bakoitzak atal bat/bi hartu eta saiatu adosten: Zer azpimarratuko?, zer baztertu? eta zer falta edota osatu behar da?.
 - Taldeak eta eremuak:
 - 1.- Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa. Parte hartzeko eredia.
 - 2.- Bizikidetza.
 - 3.- Ikasleen aniztasunari erantzutea, aukera metodologikoak. Ebaluazioaren izaera eta erabilera.
 - 4.- Hezkuntza-eskaintza (eskola kanpokoak barne) Ikastetxearen hizkuntza-plangintza.
 - 5.- Orientabidea eta tutoretza.
 - 6.- Prestakuntza eta berrikuntza.
 - Elkarjartzean ateratako adibideak:
 - 1.- Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa. Parte hartzeko eredia.
 - Neutro eran azaltzen dira funtzioak, egin beharrak... eta errealitatea ikusita, emakumeak, neskak animatu behar dira kargu batzuk hartzera. Batzutan animatu beharko zaie publikoa egitera izkutuan egiten duten lana.
 - Partaidetzan, orokorrean irakaslegoak zeregin handia dute (ardura), partaidetza sustatu behar dute, ikasleena, familia, beste giza agenteena; beti ere –partaidetza positiboa sustatuz.
 - Neskeen kasuan, falta diren esparru/eremuetan partaidetza positiboa sustatu.
 - Nahiz eta beste puntu batean azaldu, *Elkarbizitzan tratu onak sustatu behar direla aipatu behar da.*
 - ...
 - 2.- Bizikidetza.
 - Falta da:
 - Genero ikuspuntua eta Behatokitian ere sartu beharko
 - Prebentzioaren ikuspuntua
 - Familien eta ikasleen papera indartze beharra
 - Familien partaidetzan gizonak direnak partaidetza txikien dutenak (emakumeen partaidetza baloratu eta gizonezkoen partaidetza sustatu).
 - ...
 - Tartekaritza eredia azaltzen da eta bitartekaritza neskak dira gehienetan parte hartzen dutenak (bitartekariak), hori aldatu behar da, edo behintzat zaindu.
 - Bizikidetza plana egiteko edozein eredu hartuta, familiak eta ikasleen partaidetza sartu hasiera-hasieratik.
 - Prestakuntza egiten denean familiekin eta ikasleekin egin, (Diseinoa, garapena, ebaluazioa...).
 - ...
 - 3.- Ikasleen aniztasunari erantzutea, aukera metodologikoak. Ebaluazioaren izaera eta erabilera.

- Generoa aipatuta dago orokorrean baina, adibidez, aukera metodologikoan, espazioa aldez aurretik ikastetexea ikerketuta izan behar du erabilera –orekatua izateko eta ez bakarrik jolastokietan.
- Baliabide didaktikoei Hezkidetzak ikuspegi ematea inportantea da.
- Emakumeen ekarpenak azalaratzen dituzten baliabideak, proposamenak... erabiltzea/egitea (gaineratu)
- Ebaluazioan: Objektibotasuna bermatu behar da eta horretarako espektatibekin lotu behar dugu (gogoratu Gida Planan azaltzen dena eta saio batean komentatutakoa Eurydicek esaten duenari buruz).
- ...

4.- Hezkuntza-eskaintza (eskola kanpokoak barne) Ikastetxearen hizkuntza-plangintza.

- Hezkuntza-eskaintza orokorra (hautazkoak, irteerak, eskola kanpokoak...) aztertu behar da genero ikuspuntutik eta emaitzen arabera berbideratu. Irakasleak, familiak eta ikasleak, denok, izan behar gara kontziente eta denon artean irizpideak adostu.
- Orientabidearekin koherentzia.
- Hizkuntza erabilera ez sexista bermatzen duena eta komunikazioan berdintasuna eta diferentzia zaintzen duena gaineratu behar da.

5.- Orientabidea eta tutoretza.

- 5. Puntu bat gaineratu, ikasleen iguripenekin zerikusia duena. Gainera argi utzi iguripena guztion lana dela eta txiki-txikitatik landu behar dela.

6.- Prestakuntza eta berrikuntza.

- Ados, baina XXI. Irakaslearen gaitasunetan genero ikuspuntua barne egon behar du.

IHP-aren atal hauek besterik ez dira landu, gero, jarraitu beharko zen beste dokumentuetan (ICP, AJA, programazioetan...) nola isladatu adostutakoa eta hartutako erabakiak.

3.2. NOR GARA? PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

Inklusibotasuna. Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartuko duen ikastetxea nahi dugu, pertsona guztiei irekita egongo dena, eta ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena.

Ekitatea. Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera berdintasuna eta berriazko edo beharrezko babesa bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu.

Ikasleekiko errespetua. Ikasleak hazten ari diren pertsona libre gisa hartuko dituen ikastetxea nahi dugu, beren autonomia pertsonala are gehiago garatzearen alde lana egingo duena.

Bizikidetza. Giza eskubideak eta bizikidetza demokratikoaren printzipioa jarduera osoan errespetatuko dituen ikastetxea nahi dugu.

Askatasuna, erantzukizuna eta justizia. Askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna eta justizia bultzatuko dituen balioak ikastetxea nahi dugu.

Gizabidea. Gure ikasleak beren ingurune kultural eta sozialarekin konprometituta egongo diren herritar kritiko, erantzule eta integratu izateko prestatuko dituen ikastetxea nahi dugu.

Parte hartzea. Ikastetxe anitza nahi dugu, pertsona guztiei abegi egingo diena; familien, ikasleen eta profesionalen arteko lankidetza sustatuko duena; eta ingurunean eta, oro har, gizartean inplikaturik egongo dena.

Kultura-artekotasuna. Beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikide izateko, kultura-artekotasuna bultzatuko duen ikastetxea nahi dugu.

Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beren oinarritzko gaitasunak garatzea bermatzeko.

Hezkidetza. Berdintasunezko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duen ikastetxea nahi dugu.

Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazioa bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duen ikastetxea nahi dugu.

2.2. Eginkizuna: nahi dugun eskola

Plan hau landu da hezkidetzazko eskola-eredu bat bermatzeko, sexuaren arabeko estereotipoak eta rolak alboratuz eskola pertsonen garapen integralean oinarrituko dena, ikasleak era guztietako bazterkeria eta genero-indarkeriaren gaitzespenean heziko dituen eta orientazio akademiko eta profesionala ez sexista eskainiko duena, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien partaidetzaz eta inplikazioaz.

Azken batez, eskola-eredu bat nahi dugu:

1. Sexuaren arabeko estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duten berdintasuneko harremanak sustatuko dituen, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera, bakoitzaren identitatea eta ez inposatutako ereduak, oinarri hartuta.
2. Curriculumean txertatuko dituen emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial, zientifikoa eta historikoa.
3. Ikasleen autonomia indartuko duena, bizi-proiektu autonomo bat izan dezaten eta beren egungo eta etorkizuneko beharriaren ardura har dezaten, bai arlo publikoan bai pribatuan, hala etxeko lanetan nola pertsonak zaintzeko orduan.
4. Ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duena, garaia baino lehen eskola utz dezaten eragotziz, eta genero, gizarte, ekonomia, kultura, etnia edo gaitasun maila desberdinengatik sortzen diren zailtasunak hausteari arreta berezia eskainiz.
5. Orientazioa eskainiko duena, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzaren gabe egin daitezkeen.
6. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburua duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egingo duena.
7. Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean engaiatuko dena.
8. Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta -joeren errespetuan oinarritutako bizikidetzak-ereduak sustatuko dituen, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz.
9. Espazio seguru eta orekatua LGTTBI ikasle guztientzat, sexu-joera, sexu-identitatea edota genero-identitatearengatik era guztietako bazterkeria, jazarpen edota erasoetatik babestuta sentituko diren espazioa.
10. Ikasleei beren harremanak berdintasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko diena, jarrera bortitzak, matxistak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak gaindituz.

NOR GARA?: PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

IHPko *nortasun ezaugarri* adibideak eta Hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentziorako Gida Planaren *nahi dugun eskola* atala.

Landu eta gero 3 aukera atera dira:

1. Aukera

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Inklusibotasuna. Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartuko duen ikastetxea nahi dugu, pertsona guztiei irekita egongo dena, eta ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena.

Ekitatea. Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera berdintasuna eta berriak edo beharrezko babesa bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duena, garaia baino lehen eskola utz dezaten eragotziz, eta genero, gizarte, ekonomia, kultura, etnia edo gaitasun maila desberdinengatik sortzen diren zailtasunak hausteari arreta berezia eskainiz.

Ikasleekiko errespetua. Ikasleak hazten ari diren pertsona libre gisa hartuko dituen ikastetxea nahi dugu, beren autonomia pertsonala are gehiago garatzearen alde lana egingo duena. Sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duten berdintasuneko harremanak sustatuko dituen, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera, bakoitzaren identitatea eta ez inposatutako ereduak, oinarri hartuta. Ikasleei beren harremanak berdintasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko diena, jarrera bortitzak, matxistak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak gaituz.

Bizikidetzaren. Giza eskubideak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioa jardura osoan errespetatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta joeren errespetuan oinarritutako bizikidetzaren ereduak sustatuko dituen, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz.

Askatasuna, zaintza, erantzukizuna eta justizia. Askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna eta justizia bultzatuko dituen balioak ikastetxea nahi dugu. Espazio seguru eta orekatua LGTTBI ikasle guztientzat, sexu-joera, sexu-identitatea edota genero-identitatearengatik era guztietako bazterkeria, jazarpen edota erasoetatik babestuta sentituko diren espazioa. Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean engeiatuko dena.

Gizabidea. Gure ikasleak beren ingurune kultural eta sozialarekin konprometituta egongo diren herritar kritiko, erantzule eta integratu izateko prestatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburua duten indarkeria mota guztien prebentzioran aktiboki lan egingo duena

Parte hartzea. Ikastetxe anitza nahi dugu, pertsona guztiei abegi egingo diena; familien, ikasleen eta profesionalen arteko lankidetzaren sustatuko duena; eta ingurunean eta, oro har,

gizartean inplikaturaren egongo dena. Emakume eta nesken en presentzia bermatuko duena erabakitze eta ordezkatzeko organo guztietan.

Kultura-artekotasuna. Beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikidetzazko, kultura-artekotasuna bultzatuko duen ikastetxea nahi dugu.

Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beren oinarriko gaitasunak garatzea bermatzeko.

Hezkidetzaz. Berdintasuneko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duen ikastetxea nahi dugu. Curriculumean txertatuko dituen emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial, zientifikoa eta historikoa, eta Orientazioa eskainiko duena, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapez gabe egin daitezkeen. Ikaslearen autonomia indartuko duena, bizi-proiektu autonomo bat izan dezaten eta beren egungo eta etorkizuneko beharrezko ardura har dezaten, bai arlo publikoan bai pribatuan, hala etxeko lanetan nola pertsonak zaintzeko orduan.

Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazioa bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duen ikastetxea nahi dugu. Hizkuntza erabilera ez sexista bermatzen duena eta komunikazioan berdintasuna eta diferentzia zaintzen duena.

2. Aukera

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Inklusibotasuna. Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartuko duen ikastetxea nahi dugu, pertsona guztiei irekita egongo dena, eta ikaslearen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena. Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera-indar berdintasuna eta berariazko edo beharrezko babes bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duena, garaia baino lehen eskola utz dezaten eragotziz, eta genero, gizarte, ekonomia, kultura, etnia edo gaitasun maila desberdinengatik sortzen diren zailtasunak hausteari arreta berezia eskainiz.

Hezkidetzaz. Sexuaren araberako estereotipoak eta rola ezabatzen lagunduko duten berdintasuneko harremanak sustatuko dituen eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan heziko duen ikastetxea nahi dugu. sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera, bakoitzaren identitatea eta ez inposatutako ereduak, oinarri hartuta. Curriculumean txertatuko dituen emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial, zientifikoa eta historikoa, eta Orientazioa eskainiko duena, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapez gabe egin daitezkeen. Ikaslearen autonomia indartuko duena, bizi-proiektu autonomo bat izan dezaten eta beren egungo eta etorkizuneko beharrezko ardura har dezaten, bai arlo publikoan bai pribatuan, hala etxeko lanetan nola pertsonak zaintzeko orduan.

Bizikidetza. Giza eskubideak eta bizikidetz demokratikoaren printzipioa jardura osoan errespetatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukeraberdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta –joeren errespetuan oinarritutako bizikidetz-ereduak sustatuko dituena, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburua duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egingo duena.

Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodología berritzaileekin konprometuta egongo dena, ikasleek beren oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko eta sexuaren arabera estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duten berdintasunezko harremanak sustatuko dituena, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera, bakoitzaren identitatea eta ez inposatutako ereduak, oinarri hartuta.

Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazioa bultzatuko duen eta ikasle eleanitzak trebatzearen alde egingo duen ikastetxea nahi dugu. Hizkuntza erabilera ez sexista bermatzen duena eta komunikazioan berdintasuna eta diferentzia zaintzen dituena.

3. **Aukera: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua**

Izena aldatu, Hezkuntza jarri beharrean Hezkidetz ipini eta ondoko ezaugarri guztiak osatu *nahi dugun eskolako* puntuekin.

Inklusibotasuna. Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartuko duen ikastetxea nahi dugu, pertsona guztiari irekita egongo dena, eta ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko lagungarria izango dena.

Curriculumean txertatuko dituena emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial, zientifikoa eta historikoa, eta Orientazioa eskainiko duena, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapenik gabe egin daitezzen.

Ekitatea. Pertsona bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, aukera berdintasuna eta berariazko edo beharrezko babesa bermatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duena, garaia baino lehen eskola utz dezaten eragotziz, eta genero, gizarte, ekonomia, kultura, etnia edo gaitasun maila desberdinengatik sortzen diren zailtasunak hausteari arreta berezia eskainiz.

Ikasleekiko errespetua. Ikasleak hazten ari diren pertsona libre gisa hartuko dituen ikastetxea nahi dugu, beren autonomia pertsonala are gehiago garatzearen alde lana egingo duena. Sexuaren arabera estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duten berdintasunezko harremanak sustatuko dituena, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera, bakoitzaren identitatea eta ez inposatutako ereduak, oinarri hartuta. Ikasleei beren harremanak berdintasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko diena, jarrera bortitzak, matxistak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak gaingaituz.

Bizikidetza. Giza eskubideak eta bizikidetza demokratikoaren printzipioa jarduera osoan errespetatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta –joeren errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak sustatuko dituen, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz

Askatasuna, zaintza, erantzukizuna eta justizia. Askatasuna, erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna eta justizia bultzatuko dituen balioak ikastetxea nahi dugu. Espazio seguru eta orekatua LGTTBI ikasle guztientzat, sexu- joera, sexu-identitatea edota genero-identitatearengatiko era guztietako bazterkeria, jazarpen edota erasoetatik babestuta sentituko diren espazioa. Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean engeiatuko dena.

Gizabidea. Gure ikasleak beren ingurune kultural eta sozialarekin konprometituta egongo diren herritar kritiko, erantzule eta integratu izateko prestatuko dituen ikastetxea nahi dugu. Ikasleen autonomia indartuko duena, bizi-proiektu autonomo bat izan dezaten eta beren egungo eta etorkizuneko beharrezko arduraren ardura har dezaten, bai arlo publikoan bai pribatuan, hala etxeko lanetan nola pertsonak zaintzeko orduan. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburua duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egingo duena.

Parte hartzea. Ikastetxe anitza nahi dugu, pertsona guztiei abegi egingo diena; familien, ikasleen eta profesionalen arteko lankidetzak sustatuko duena; eta ingurunean eta, oro har, gizartean inplikaturik egongo dena. Emakume eta nesken presentzia bermatuko duena erabakitze eta ordezkatzeko organo guztietan.

Kultura-artekotasuna. Beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikidetzazko, kultura-artekotasuna bultzatuko duen ikastetxea nahi dugu.

Irakasleen gaitasun profesionala. Etengabeko hobekuntzaren alde egingo duen ikastetxea nahi dugu, irakaskuntza nahiz metodologia berritzaileekin konprometituta egongo dena, ikasleek beren oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzeko.

Normalizazioa eta eleaniztasuna. Euskararen normalizazioa bultzatuko duen eta ikasle eleaniztatzeko trebatzearen alde egingo duen ikastetxea nahi dugu. Hizkuntza erabilera ez sexista bermatzen duena eta komunikazioan berdintasuna eta diferentzia zaintzen duena.